2023ko iraila
2024ko maiatza

XIII. EDIZIOA

# Jabetze feministarako eskola

*Zaindu itxura*



*Beti ezti eta interesgarri*



*Besteen aurrean, irribarretsu*





## Badakizu zer toki dagokizun

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

010

Gasteiztik kanpo: 945 161 100

**BERDINTASUN ZERBITZUA**

Gasteizko Emakumeen Etxea

Etxanobe jauregia
Santa Maria 11 · 01001 · Vitoria-Gasteiz

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna



@emakumeenetxeavg

@VG_berdintasuna

Berdintasuna VG

emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city
igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

945 16 12 14 / 945 16 13 45

www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Eskolako idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, Kooperatiba Txikia

*Herri Handi* hitzaldi-zikloaren koordinazioa: Flora Pozzobon

Ilustrazioak eta azalaren diseinua: LaBildotsne

Diseinua eta maketazioa: La Debacle

Itzulpena: Alaitz Andreu

Inprimaketa: Héctor Soluciones Gráficas

L.G.: VI 673-2018

# AURKIBIDEA

**KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK** .................................. **6**

**GURE TOKIA** .................................................................. **7**

**INAUGURAZIOA. CÓMO HEMOS LLEGADO HASTA AQUÍ** .......... **8**

**IKERKETA FEMINISTAKO LANEN IV. LEHIAKETA** ......................... **9**

**HERRI HANDI** **11**

- CONTRA-PEDAGOGÍAS DE LA CRUELDAD ........................ 12
- RESISTENCIA MIGRANTE Y ANTIRRACISTA ........................ 13
- ENTRE LA IMPUNIDAD SEXISTA Y LA DEMAGOGIA PUNITIVA: APUNTES PARA PENSAR LA RELACIÓN ENTRE FEMINISMOS Y JUSTICIA ........................ 14

**HITZALDIAK** **15**

- DESEOS Y MERCADOS REPRODUCTIVOS: MÁS ALLÁ DE LAS TÉCNICAS ........................ 16
- MUJERES ASESINADAS, COMUNIDADES HERIDAS Y ASESINOS NORMALES ........................ 17
- MUNSTROAK HEMEN DIRA. LODIFOBIA SUNTSITZEKO LEHEN PAUSOAK ........................ 18
- DECIR NO O DECIR SÍ: EL PROBLEMA DEL CONSENTIMIENTO ........................ 19
- EL SEXO COMO CAMPO DE BATALLA ¿POR QUÉ UNA SEXOLOGÍA FEMINISTA CRÍTICA? ........................ 20
- PATRONATO DE PROTECCIÓN A LA MUJER. UNA INSTITUCIÓN DE REPRESIÓN FRANQUISTA SEPULTADA POR LA HISTORIA ........................ 21
- YO POR ELLAS, MADRE, Y ELLAS POR MÍ. LA POTENCIA DEL FEMINISMO TRAS LAS HUELGAS FEMINISTAS ........................ 22
- HEZKUNTZAREN LEGEAK EZBAIAN ........................ 23
- ENVEJECIMIENTOS Y DIVERSIDADES SEXUALES Y DE GÉNERO ........................ 24

**ARTE ESZENIKOAK** **25**

- DIVULVADORAS DE LA HISTORIA ........................ 26
- KILIMATERIOA. BAT-BATEKO BERTSOAK ETA BAKARRIZKETA ........................ 27
- NIRE IRUDIA ZURE HARAGIAN ........................ 28
- NADIE HABLARÁ DE NOSOTRAS. SHOW MUSICAL ........................ 29
- RODRIGO CUEVAS ........................ 30
- LO NORMAL (GAZTELANIAZKO ZEINU-HIZKUNTZA) ........................ 31
- BOLLO-TRANS BERTSO-SAIO MUSIKATUA ........................ 32
- WATTEKE ........................ 33

**ZINE FORUMA** **35**

MI PAÍS IMAGINARIO ........ 36
LAS BUENAS COMPAÑÍAS ........ 37
PLAN 75 プランななじゅうご ........ 38
LA CONSAGRACIÓN DE LA PRIMAVERA ........ 39
PETIT MAL ........ 40

**IRAKURLE KLUBAK ETA IDAZKUNTZA-LANTEGI LITERARIOA** **41**

FEMINIST AGENDA EUSKAL LITERATURAN IRAKURLE-KLUBA ........ 42
LA HORA VIOLETA IRAKURLE-KLUB FEMINISTA ........ 43
IRAKURKETA OKERRAK, LECTURAS DESVIADAS IRAKURLE-KLUBA ........ 44
CLUB DE LECTURA FÁCIL FEMINISTA ........ 45
VOCES LITERARIAS FEMINISTAS ........ 46

**IKASTAROAK ETA LANTEGIAK** **47**

DESHABITADAS: VIOLENCIAS, RESISTENCIAS Y ALTERNATIVAS FRENTE A LA NECROPOLÍTICA ........ 48
LA BICI DE LOLA ........ 49
PROPUESTAS COEDUCATIVAS: EDUCACIÓN SEXO-AFECTIVA ........ 50
EN LAS ASOCIACIONES, ¿NOS DA = LA IGUALDAD? CÓMO INTEGRAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO E INTERSECCIONAL ........ 51
¿QUÉ PODEMOS HACER PARA MEJORAR LA VIDA DE LAS PERSONAS TRANS*? TALLER PARA FAMILIAS Y AMISTADES ........ 52
LODIFOBIA ETA GORPUTZ EREDUGARRIEI KRITIKA ........ 53
LA CRIANZA DE HIJAS E HIJOS CON SÍNDROME DE DOWN Y OTRAS DISCAPACIDADES ........ 54
HERRAMIENTAS PARA ABORDAR LAS VIOLENCIAS SEXUALES DESDE LAS JUSTICIAS TRANSFORMATIVAS FEMINISTAS ........ 55
BAKARDADEA, BAZTERTUEN TOPALEKU. ¿QUÉ PODEMOS HACER DESDE EL FEMINISMO FRENTE A LA SOLEDAD? ........ 56
ESTEREOTIPOS DE GÉNERO Y SALUD MENTAL ........ 57
LAS VEJECES DE LAS MUJERES MAYORES EN CLAVE FEMINISTA ........ 58
CHI KUNG-AREN HASTAPENAK ........ 59
#SERLOBAS. MIRAR/NOS DE NUEVO ........ 60
¡QUE VIENE LO *QUEER*! ........ 61
TÉCNICAS PARA HABLAR EN PÚBLICO ........ 62
HORIEK BARREAK! UMORE-LANTEGIA, IKUSPEGI FEMINISTATIK ........ 63
UN NIDO EN EL ALAMBRE: PENSANDO NUESTRAS MATERNIDADES ........ 64
AUTODEFENSA FEMINISTA ........ 65
IZENDATZEN EZ DENA EZ DA EXISTITZEN: GASTEIZKO EMAKUMEAK IKUSGAI ........ 66
MUJERES DE KURDISTÁN ........ 67

USO DE DROGAS DESDE UNA PERSPECTIVA DE GÉNERO: LA EXPERIENCIA DE METZINERES ........ 68
DIÁLOGOS DE AGUJA: ACCIÓN TEXTIL SOBRE CUERPO Y VIOLENCIA ........ 69
ALMENDRAKO IBILBIDEA. IKUSARAZI BEHARREKO HISTORIA: EMAKUMEAK GASTEIZEN ........ 70
¿QUIÉN ES EL ENEMIGO? PENSAR LA MASCULINIDAD DESDE UN FEMINISMO DE LA EMANCIPACIÓN ........ 71
FEMINISMO ANTIMILITARISTA ........ 72
¿LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS TRANS, EN CONTINUO DEBATE? LA LEY VASCA Y OTROS MARCOS NORMATIVOS ........ 73
LA I EXISTE. MARCO BÁSICO PARA ENTENDER LAS INTERSEXUALIDADES ........ 74
EmpoderARTE ........ 75
IMPRO LGTBIQA+ ........ 76

**FEMINISMOAN ITZEL** **77**

MaiteEzMindu / ViolenciaNoEsAmor ........ 78
WECÅNDOIT ¡NOSOTR*S PODEMOS HACERLO! ........ 79
DOWN POWER ........ 80
AUTODEFENTSA FEMINISTA ........ 81
"SAREAN SEGURU, ERREBELDE ETA ALAI LIBRE IZAN NONAHI" TOPAKETA (ZIBER)INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZEN ALDE ........ 82
MANGA MARRAZKETA ETA IRAKURKETA ........ 83
CAPOEIRA. EL BERIMBAU DE SAFO ........ 84
NAHI DUGUNA IZANGO GARA! ........ 85
HILEROKOAREN ZIKLOAZ ELKARREKIN IKASTEN ........ 86
GINKANA FEMINISTA ........ 87
ZENBATEKO ETA NOLAKO FAMILIAK? IPUIN-LANTEGIA ........ 88
NAIZENA NAIZELA. IPUIN-LANTEGIA ........ 89

**ITXIERA. ALARMA MOREA ........ 90**

**GASTEIZKO EMAKUMEEN ETXEA ........ 91**

# KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK

1. Hitzaldietan, **zeinu-hizkuntzako** interpreteak egongo dira. Gainerako jarduoretarako interpreterik behar izanez gero, jakinaraz iezaguzue hiru egun lehenago, telefonoz edo posta elektronikoz: 945 16 12 14 / emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city. Gauza bera, **haurtzaindegi-zerbitzua** behar izanez gero.
2. Ikastaroetako eta lantegietako tokiak **iritsi** ahala esleitzen dira, zozketarik egin gabe. Tokiak agortuz gero, ez da erreserba-zerrendarik sortuko.
3. Gasteizko elkarte eta gizarte-taldeek berariaz eskatutako jarduerak barnebiltzen ditu eskolak, eta haien interes eta premien alderdi batzuei erantzutera daude bideratuta. Elkarlan hori giltzarria da, bai elkarrekin ahalduntzeko, bai hiriko elkartze-ehuna sendotzeko. Hori dela-eta, jarduera horiek dohainik eskaintzea erabaki du Berdintasun Zerbitzuak, eta elkarte horietako kideak ez direnentzat ere irekita daude.
4. Udal-instalazioen **bazkide zaretenok kuota murrizteko** aukera duzue ordaindu beharreko ikastaroetan zein lantegietan.
5. **Langabezian** bazaudete, dagokion prezioa % 15 murrizteko aukera duzu. Nahikoa da Lanbideren "izen-emate aldiko ziurtagiria" aurkeztea, jardueran izena eman aurreko zazpi egunetan jaulkitakoa.
6. **Gizarte-babesgabetasuneko egoeran** zaudetenok jarduerak doan izatea eska dezakezue, gizarte-zerbitzuen ziurtagiria aurkeztuta.
7. Izena eman baduzue baina azkenean bertaratu ezin bazarete, jarduera hasi baino lehen edozein gizarte-etxetan **baja ofizialki ematea** eskatzen dizuegu. Hala, beste batzuek hartu ahalko dute zuen lekua, normalean beteta egoten dira-eta. Gainera, baja ofizialki emanez gero, ordaindutako kuota itzuliko dizuegu, dirua zuen banku-kontura sartuz (ordaindutako zenbatekoaren % 15 atxikiko dugu, kudeaketa-gastu gisa).
8. A25 Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguneko programazioa.
9. M8 Emakumeen Eguneko programazioa.
10. M17 LGTBI-fobiaren Aurkako Eguneko programazioa.
11. BAIETZ ULERTU Jarduera hauetan parte hartzeko ez da beharrezkoa jendaurrean euskaraz hitz egitea, baina bai ulertzea.
12. Zeinu Hizkuntzako Interpreteen zerbitzua.
13. **Desgaitasun intelektuala** dutenei egokitutako jarduerak. Laguntzeko begirale bat behar baduzu, eska ezazu hiru egun lehenago, telefonoz edo posta elektronikoz: 945 16 12 14 / emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city

# GURE TOKIA

"Zaindu itxura". "Beti ezti eta interesgarri". "Besteen aurrean, irribarretsu". "Ez egin zaratarik". Emakumeei zuzendutako 50eko hamarkadako aldizkariek jasotako aginduak dira guztiak, eta, beste garai batekoak direla iruditu arren, gure gizartean indarrean jarraitzen dute. Halere, aitortu egin behar dugu aginduon pisua arinagoa dela gaur egun, emakumeok erantzuteko estrategiak –banakakoak nahiz taldekoak– abiatzen jakin dugulako, bai sexu- eta genero-araua hausteko, bai mugimendu feministaren lan historiko eta kolektiboarekin sistemari erronka egiteko.

Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolaren XIII. edizioak askotariko jarduerak eskaintzen ditu (hitzaldiak, arte eszenikoak, literatura, zinema eta musika), heteropatriarkatuaren kontra konspiratzen jarrai dezagun, elkartu gaitezen eta hausnartu zein eztabaidatu dezagun, inoiz baino gehiago babestu behar baititugu emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubide eskuratuak.

Edizio honek, halaber, etenaldia, lasaitasuna, atsedena, autozaintza, besteen zaintza eta bizi-erritmo jasangarriagoak aldarrikatzen ditu, beti eraginkor, laguntzeko prest, ausart, perfektu eta funtzional nahi gaituen ereduaren aurrean. Ordainetan, nahi dugun bezala jarduten dugu, eta nahi bezala agertzen gara, baita errebelde, disidente, desafiatzaile, plazerzale, oihulari, izter-zabal, haserre eta ez-konforme ere. Baina ez indibidualizatzen duen eskubidetzat hartuta, sistema sozial eta ekonomiko suntsitzaile eta sostengaezin bati aurre egiteko auzi sozial eta kolektibo gisa baizik.

"Badakizu zer toki dagokizun" da 50eko hamarkadako aldizkarietako beste agindu bat, eta, Eskolan, bestelako esanahi bat eman nahi izan diogu horri, udalerriko kolektiboen, Etxeguneko parte-hartzaileen, erakunde laguntzaileen eta udal-zerbitzuen proposamenak biltzen dituen askotariko egitarau batekin, geure tokia eraikitzeko alternatibak eskaintzen jarraitu nahi dugulako.

Beste urte batez, elkarrekin konspiratzen jarraitzera gonbidatzen zaituztegu.



# INAUGURAZIOA

**2023ko irailaren 21a, osteguna | 18:30**
**Felix Petite antzokia (Ibaiondo gizarte-etxea)**



## CÓMO HEMOS LLEGADO HASTA AQUÍ

"Cómo hemos llegado hasta aquí" *talk show*-aren, autofikzioaren, panfleto politikoaren, analisi sozialaren eta heroi mitologiko klasikoaren bidaiaren artean dabilen izenburu bat da, desafio eta emozio unibertsalak biltzen dituena; hemen, baina, heroia amarekin obsesionatuta dagoen bollera bat da, Plasenciakoa, eta prekarietatean murgilduta bete ditu berrogeiak (edo gehiago). Antzezlana hainbat fase izan dituen ikerketa-prozesu baten emaitza da, eta proiektuan sartuta dauden hiru artisten eskarmentutik ere elikatzen da.

**Zuzendaria:** Andrea Jiménez

**Egileak:** Olga Iglesias eta Nerea Pérez de las Heras

**Dramagileak:** Olga Iglesias, Nerea Pérez de las Heras eta Andrea Jiménez

**Antzezleak:** Olga Iglesias eta Nerea Pérez de las Heras

**TEATRO DEL BARRIOren ekoizpena**

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

# IKERKETA FEMINISTAKO LANEN IV. LEHIAKETA

Parte-hartzaileek beren intereseko gai bat hautatu beharko dute, eta **ahalduntze feministako** esperientziei erreparatu edota gure hirian emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideen aldeko gizarte-eraldaketari ekarpenen bat egin.

Lehiaketan aurreikusten denez, ikerketa-lanean aritzeko **bidelaguntza** eskainiko da, akademiaren edo ikerketaren eremuan lan egiten ez dutenek ere egitasmoan parte hartu ahal izan dezaten.

Ikerketa-lanen proposamenak **2023ko irailaren 27ra arte** aurkeztu ahalko dira.

**Bi proposamen** hautatuko dira, eta bakoitzak **4.800 euro** jasoko ditu.

**Oinarriak hemen:**
v-g.eus/ikerkuntzafeminista

## HAUTATUTAKO LANEN AURKEZPENA

**2024ko ekainaren 6a, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania, azterlanaren hizkuntzaren arabera

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN GAINEKO MASTERRA
MASTER EN IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES



# HERRI HANDI

## HERRI HANDIAREN HITZALDIAK, INFERNU TXIKI BATERAKO

Hitzaldi-ziklo honen bidez, planetako beste latitude batzuetan sortu diren diskurtsoak eta praktikak ekarriko ditugu Eskolara. Jarri diogun izenburua 'Herri txiki, infernu handi' / 'Pueblo pequeño, infierno grande' esamoldean dago inspiratuta (bertsio latinoamerikarrean, 'Pueblo chico, infierno grande' da). Esaera hori egiazkoa izateko aukera dagoenez (batez ere, emakumeentzat eta sexu- nahiz genero-disidenteentzat), abia dezagun "herri handiaren" elkartasuna, guztion askatasunak aldarrikatzeko orduan. Herri Handi honetan, honako gai hauek nagusituko dira: indarkeria matxista, indarkeria horrek emakumeen eta genero-disidenteen bizitzen eremu askotan duen eragina eta munduaren hegoaldeko aktibisten askotariko erresistentzia feministak.

**Koordinatzailea: Aitziber Pérez de Karkamo**, kazetaria. Hedabide askeetan komunikatzen saiatzen naiz, betaurreko eta luma moreak jantzita. @halabedi eta @naiz_iritzia

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean



A25

# CONTRA-PEDAGOGÍAS DE LA CRUELDAD

HIZLARIA: **Rita Laura Segato**, antropologoa, pentsalaria eta aktibista feminista

Krudelkeriaren pedagogiaren kontzeptua aztertuko dugu; hau da, gizarte patriarkal eta kolonialetan kontrol- eta menderatze-mekanismoak ezartzeko xedez indarkeria eta krudelkeria erabiltzen dituen pedagogia. Indarkeriak ekintza fisikoak gainditzen dituela ikusiko dugu, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen den eta kulturaren, hezkuntzaren eta boterearen arteko loturen bidez indartzen den kontrol-tresna sinbolikoa ere badela.

**2023ko azaroaren 28a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:** Gaztelania



# RESISTENCIA MIGRANTE Y ANTIRRACISTA

HIZLARIA: **Loueila Mint El Mamy (Lala)**, abokatua, migrazioan eta atzerritartasunean aditua eta arrazakeriaren aurkako aktibista

Azken urteotan, komunikabideek migrazioa nola kriminalizatu duten ikusi ahal izan dugu, bai eta "migrazio-krisia" deiturikoan "inbasioa", "ordezkapena" eta "dei-efektua" terminoak erabiltzen dituzten lerroburuak hedatu dituztela ere. Ezinbestekoa da pertsonei eta haien agentzia politikoari helduko dien ikuspegi batetik jorratzea mugen auzia. Mugak ez direlako mugaketa geografiko hutsak: migratzaileen eta errefuxiatuen kontrako indarkeria betikotzen duten instituzioak dira.

**2024ko martxoaren 26a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:**
Gaztelania



# ENTRE LA IMPUNIDAD SEXISTA Y LA DEMAGOGIA PUNITIVA:

## APUNTES PARA PENSAR LA RELACIÓN ENTRE FEMINISMOS Y JUSTICIA

HIZLARIA: **Ileana Arduino**, abokatua (UBA, Arg) eta INECIP institutuko feminismoei eta zigor-justiziari buruzko programaren koordinatzailea

Kontsigna sinplistek hartu ohi dute sexu- eta genero-indarkeriari buruzko eztabaida, eta, kontsigna horien artean, zigorrik gabe justiziarik ez dagoelakoa dago. Nor eta zeren inguruan egiten du erantzule espetxeak? Eta nori kentzen dio edo zeren inguruan kentzen du erantzukizuna? Jarrera zurrun horiek jorratuko ditugu, beste aukera bat irudikatzeko: zigorraren ordez erreparazioa lantzeak erantzun eta arreta hobeak eman diezazkieke biktimei, eta aukera hobeak sortu, erasotzaileek beren gain har dezaten eragindako minaren erantzukizuna. Izan ere, posible al da gatazkak konpontzea, guztiari irtenbide berbera ematen badiogu?

**2024ko apirilaren 23a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:**
Gaztelania

# HI TZAL DIAK





# **DESEOS Y MERCADOS REPRODUCTIVOS:** MÁS ALLÁ DE LAS TÉCNICAS

HIZLARIA: **Sara Lafuente Funes**, soziologiako doktorea, Frankfurteko Unibertsitatean ikertzailea eta "Cryosocieties" ikerketa-taldeko kidea

DINAMIZA-TZAILEA: **Ianire de la Calva Ibarrondo**, feminista, lesbiana, ingeniaria, adopzio-bidezko ama, erditu den ama eta FeministAlde!-ko kidea

**2023ko urriaren 10a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

Gero eta pertsona gehiagok jotzen dute ugalketa lagundura, haurdun geratzeko. Horrekin batera, "dohaintzan emandako" obulu asko erabiltzen dira Estatuan, eta "haurdunaldi subrogatua" agertu da nazioartean. Emaileen material biologikoa erabiltzeak, haurdunaldia, erditzea eta puerperioa kanporatze aldera emakumeak kontratatzeak eta ugalketa-turismo deiturikoak galdera asko sortzen dituzte, eta garrantzitsua da galdera horiei komunitatean erantzutea. Aldi berean, praktika horiek sortzen eta sendotzen dituen testuingurua ulertzeko, baliagarri gerta dakiguke ulertzea zergatik jotzen dugun gero eta gehiagotan ugalkortasun-kliniketara. Hitzaldi honetan, ugalkortasun-krisiaren ideiatik abiatuta jorratu eta pentsatuko dugu auzia, imajinazio feministari atea irekiz, hazi eta hezteko nahia birpentsa eta birkoka dezagun.



A25

# MUJERES ASESINADAS, COMUNIDADES HERIDAS Y ASESINOS NORMALES

HIZLARIA: **Norma Vázquez García**, feminista, psikologoa eta Sortzen aholkularitza-enpresako zuzendaria

DINAMIZATZAILEA: **Goizargi Emakumeak**. Indarkeria matxistaren emakume biktima eta bizirauleen elkartea

2023ko maiatzaren 16an, gizon batek emakume bat hil zuen Orioko kale batean, egun argiz. Bikotekide ohia zuen. Handik astebetera, beste gizon batek haurdun zegoen bikotekidea hil zuen Gasteizen, urruntze-agindua eduki arren.

Hilketa horiek, hilketon ezaugarriak eta hilketok erakundeetatik jasotako erantzunak aztertu behar ditugu, bizitza kolektiboan duten eragina eta hedatzen dituzten mezu sinbolikoak ebaluatzeko.

**2023ko azaroaren 14a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** Goizargi Emakumeak





# MUNSTROAK HEMEN DIRA
## LODIFOBIA SUNTSITZEKO LEHEN PAUSOAK

HIZLARIAK: **Itziar Reguero Fernandez de Aranguiz** eta **Mijo Lizarzaburu Garcia**, antropologo eta filosofoak. Bollera lodi transfeministak eta Ezin Kabituko kideak

DINAMIZATZAILEA: **Laura Galar Perez de Onraita**, Ezin Kabituko kidea

BAIETZ ULERTU

**2023ko abenduaren 12a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** Ezin Kabitu

Munstroak gara gizarterako: beldurra digute, beldurra garenari, beldurra noizbait gu bezalakoak izateari. Beldurra ematen ez diegunei, ordea, pena ematen diegu. Beldurra eta pena, gorrotoaren bi oinarriak.

Loditasunak pisu handia dauka gaur egun, eta pisu hori daramagunok indarkeriaz armatutako gizarte batean bizirauten dugu. Sistema lodifoboa ulertu eta haren aurrean zer egiten has gaitezkeen jakiteko lehen pausoak ematera gatoz. Horretarako, identitatetik aldarrikatzen ditugu loditasuna eta munstrotasuna.



# DECIR NO O DECIR SÍ: EL PROBLEMA DEL CONSENTIMIENTO

HIZLARIA: **Clara Serra Sánchez**, doktoratu aurreko ikertzailea Bartzelonako Unibertsitatean

DINAMIZATZAILEA: **Miren Ortubay Fuentes**, Maria de Maeztu Forum Feministako kidea eta indarkeria matxistan aditua

Azken urteetan, sexualitatearen esparruan, feminismoek onespenaren inguruko auzi zahar eta politikoa eguneratu dute. Hitzaldi honetan, emakumeek ezetz esateko duten aukerari edo aukerarik ezari buruz eta "onespen positiboaren" doktrina juridiko berriek izan dezaketen esanahiari buruz hitz egingo dugu, diskurtso berriek planteatzen dituzten auziak jorratuz. Hori guztia, neoliberalismo sexualetik eta izu sexualaren kontakizunetatik ihes eginez eta emakumeen sexu-askatasunari aurrera egiten lagundu diezaioketen ikuspegiei helduz.

**2024ko urtarrilaren 9a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean





# EL SEXO COMO CAMPO DE BATALLA
## ¿POR QUÉ UNA SEXOLOGÍA FEMINISTA CRÍTICA?

HIZLARIAK: **Noemi Parra Abaúnza**, gizarte-langilea, antropologoa eta sexologoa. Doktorea Genero Ikasketetan eta irakaslea ULPGCn.
**Isa Duque**, **@lapsicowoman**

DINAMIZATZAILEA: **Itziar Nanclares de Ganboa García**, sexologoa eta gorputz-arteterapeuta. Denbora elkartea

**2024ko otsailaren 13a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

Uste dugu sexua gudu-zelai bat dela, non tiroek sakon eztabaidatzea galarazten baitute. Hitzaldi honetan, elkarrizketa eraikitzaile bat proposatuko dugu, sexologia feminista kritikoak egiten dituen ekarpenetatik abiatuta. Sexuak "saldu" egiten duenean, sexuak izu moralak suspertzen dituenean eta sexua desiraren eta gorrotoaren toki bihurtzen denean, zer ekarpen egin dezake sexologia feminista kritikoak?



M8

# PATRONATO DE PROTECCIÓN A LA MUJER

## UNA INSTITUCIÓN DE REPRESIÓN FRANQUISTA SEPULTADA POR LA HISTORIA

HIZLARIA: **Andrea Momoitio**, kazetaria eta Pikara Magazineko koordinatzailea 2010etik

DINAMIZATZAILEA: **Mertxe Lozano Díaz**, feminista antimilitarista. Sorgineneako presidentea

Patronatua erakunde frankista bat da; 1941ean sortu zen, eta neskentzako gizarte-zerbitzu gisa funtzionatu zuen diktadura osoan. Justizia Ministerioaren mende zegoen, eta "eroritako emakumeen" nahiz "erortzeko zorian zeuden emakumeen" kontrako errepresio-gailu nagusia zen. Hitzaldi honetan, 80ko hamarkadara arte jardun zuen erakunde ezezagun baten xehetasunak aztertuko ditu kazetariak.

**2024ko martxoaren 12a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** Sorginenea





J. Marcos / Pikara Magazine



# YO POR ELLAS, MADRE, Y ELLAS POR MÍ

## LA POTENCIA DEL FEMINISMO TRAS LAS HUELGAS FEMINISTAS

HIZLARIAK: **Justa Montero Corominas**, aktibista feminista eta soziala
**Anabel Sanz del Pozo**, FeministAlde!-ko kidea
**Marina Sagastizábal Emilio-Yus**, Bilgune Feministako kidea eta soziologoa

Greba feministek, hain erradikalak eta masiboak izaki, feminismoaren zentzua lehiatu eta irabazi zuten. Feminismo horrek zeharkatzen gaituzten askotariko gatazkei heltzen die, jarduteko eta bizitza duinak pentsatzeko begirada orokor batean oinarrituta. Greba feministek hankaz gora jarri zituzten gauza asko: bizitzako baldintza material duinen eta askotariko identitateen alde egin genuen, eta aurre egin genion natur baliabideak suntsitzen dituen sistema patriarkal, kapitalista eta arrazistari.

Feminismoa zeharkakoa dela ematen duen une honetan, nola eutsi diezaiokegu feminismoaren benetako ahal eraldatzaileari? Nola jardun dezakegu, oraingo paradoxen, desberdinkeria eta indarkeria latzenen, eskuin muturraren eta eskuinaren gudu kulturalen, erantzun feminista atzeman nahi duen indibidualismo neoliberalaren eta itxuraz berdinzalea den unibertsalismoaren aurrean?

**2024ko apirilaren 9a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

# HEZKUNTZAREN LEGEAK EZBAIAN





HIZLARIAK: **Arantza Fernandez de Garayalde Ulacia**, maistra eta sindikalista erretiratua. Euskal Eskola Publikoaren aldeko mugimenduko militantea
**Teresa Maldonado Barahona**, FeministAlde! eta Hezkuntza Laikoa taldeetako kidea eta Filosofiako irakaslea

DINAMIZATZAILEA: **Amelia Barquín López**, HUHEZIko ikertzaile-irakaslea kulturarteko hezkuntzan, hizkuntzaren erabileran eta generoa eta hezkuntzan

Gizarte orok transmititu behar dizkie belaunaldi berriei ezagutza metatua eta teknika, praktika eta balio partekatuen ondarea; hots, kulturatzat jotzen dugun hori. Gizarteak, ordea, gizarte modernoak gehienbat, ez dira homogeneoak, eta interes eta kontzepzio kontrajarriak gurutzatzen dituzte transmititu behar denari buruz, edota nola, nork... transmititu behar duen. Hori dela-eta, hezkuntza arautuaren inguruko eztabaidak saihestezinak eta iraunkorrak dira. Bi ahots feminista ekarri ditugu mahai honetara, hezkuntzari buruzko azken legegintza-garapenen inguruan dituzten ikuskera kritikoak parteka ditzaten.

BAIETZ ULERTU

**2024ko maiatzaren 7a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean



M17

# ENVEJECIMIENTOS Y DIVERSIDADES SEXUALES Y DE GÉNERO

HIZLARIA: **Josep Maria Mesquida González**, Fundació Enllaç egitasmoko patroia eta Gizarte Langintzako irakaslea Bartzelonako Unibertsitatean

DINAMIZA-TZAILEA: **Charo Ramírez Salazar**, BIZAN sareko animazio soziokulturaleko erdi-mailako teknikaria

**2024ko maiatzaren 21a, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Baita *streaming* bidez ere:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** BIZAN, Adinekoen Zerbitzua

Adineko LGTBIQ+ pertsona batzuk gizarte-zaurgarritasun handiko egoeran daude, bizitza osoan jasan dituzten desberdinkerien ondorioz. Egoera horiek ikuspegi intersekzionalarekin eta bizitza-ibilbidearen ikuspegiarekin jorratzea proposatzen dugu, kolektiboa osatzen duten taldeen ongizatea hobetu ahal izateko. Bestetik, nahitaezkoa iruditzen zaigu gerontologia kritiko eta lotesleetatik jardutea.

**Laguntzaileak:**
Gasteizko Udalaren Antzoki eta Gizarte-etxeen Sarea

# ARTE ESZENIKOAK






# DIVULVADORAS DE LA HISTORIA

**2023ko urriaren 20a, ostirala**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Historiari buruzko *podcast* honek genero-ikuspegia dauka, eta Naiara López de Munain eta Isabel Mellén ditu gidari. Bada, lehen aldiz, ikus-entzuleen aurrean zuzenean grabatuko dute ataletako bat, musika-emanaldiek, asko esateko duten gonbidatuek eta, batez ere, umoreak lagunduta.

**Isabel Mellén Rodríguez,** filosofoa eta arte-historialaria. Ikertzailea Erdi Aroko artean, genero-ikuspegiarekin

**Naiara López de Munain San Martín,** kazetaria eta irrati-komunikatzailea




# KILIMATERIOA
## BAT-BATEKO BERTSOAK ETA BAKARRIZKETA

Zer gertatzen da emakumeon bizitzan, klimaterioan sartu eta menopausia ate joka dugunean? Nola sentitzen gara? Alboan duguna akabatzeko moduan. Suminkortasunez beteta, abanikoen erreginak bilakatzen gara. Eraldaketa-prozesu horrek, ordea, bestelakoak ere ematen dizkigu.

**Zuzendaria:** Kaitin Allende

**Partaideak:** Kaitin Allende, Iratxe Ibarra, Oihane Perea, Irati Anda

**Konpainia:** Lanku Kultur Zerbitzuak

BAIETZ ULERTU

**2023ko azaroaren 9a, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



# NIRE IRUDIA ZURE HARAGIAN

Antzezlan performatibo honek intimitatearen eraikuntzan agertu ohi diren menderakuntzaren eta otzantasunaren arteko mugak tenkatzen ditu. Diziplinarteko pieza honetan, mugimenduak, eskulturak eta soinuek topo egingo dute. Bi emakume, nor bere ama-hizkuntzan: antzinako kontakizunetan murgilduta, sonoritate berriak sortzera jolastuko dira.

Zer gertatzen da intimitatearekin, haren inguruko ikuskizun bat egiten badugu?

Publikoaren eta pribatuaren arteko hibridazio-ariketa bat da.

Zaurgarritasuna eta indarkeria.

Edertasuna eta deformazioa.

Antzinakotasuna eta oraina.

**Performerrak eta dramaturgia:** Amaiaur Macías eta Raíra Rosenkjar

**Konpainia:** Kafuné Kolektiboa

BAIETZ ULERTU

**2023ko azaroaren 24a, ostirala**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Euskara eta portugesa

**Gonbidapenak:**
www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



# NADIE HABLARÁ DE NOSOTRAS
## SHOW MUSICAL

"Nadie hablará de nosotras" *podcast* bat da, baina baita hiru lagun ere (Cris, Lara eta Antía), hilero-hilero elkartzen direnak gorputzari, indarkeriari eta justiziari buruz berriketan aritu eta abesteko.
Ikuskizun honetan, pertsonala eta politikoa den horretatik hitz egingo dute, eta Antía Eseuveren musikaren erritmora dantzatuko, gitarraren soinua izango baita Crisen eta Lararen istorioen euskarria.
Ikuskizunean, lodifobiaz hitz egingo dute. Lodiok kontrola galduta dugula esan ohi da, gainezka egiten dugula. Beharbada, gainezkatze hori besarkatu eta kontrolik gabe abestu eta hitz egiteko unea iritsi da.

**Egileak, zuzendariak eta ekoizleak: Cristina de Tena**, gizarte-hezitzaile eta -integratzailea, eta **Lara Gil**, generoan eta feminismoetan espezializatutako antropologoa

**Soinu-diseinatzailea eta musika-sortzailea: Antía Eseuve**, soinu-sortzailea, bakarlaria eta musikologoa

**2023ko abenduaren 15a, ostirala**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista




## RODRIGO CUEVAS

**2024ko martxoaren 14a, osteguna**

**Ordua:** 19:30

**Tokia:** Principal Antzokia

**Prezioa:** 18,00 €

**Informazioa eta sarreren salmenta:**
www.principalantzokia.org
(2024ko urtarriletik aurrera)



M17

# LO NORMAL (GAZTELANIAZKO ZEINU-HIZKUNTZA)

Sexologo pailazo batek hautsi egin nahi du sexualitatea bizitzeko modu bakarra dagoelako ideia. Kokoteraino dago jendeari kontsultan normala izan nahi duela entzuteaz. Izan ere, badago pertsona normalik? Ikus-entzuleekin jolasean, sexualki oso gaizki hezi garela, ohean komunikatzea benetan zaila dela eta benetako plazeraz oso gutxi hitz egiten dugula ikusiko dugu.

Zergatik tematzen gara gizartearekin bat etortzen? Zoritxarrei barre egiten dien areto bat izango da NORMALA.

**Pailazoa:** Núria Cano

**Zeinu-hizkuntzako aktore eta interpretea:** Laura M. Golvano

**Dramaturgoak, zuzendariak eta ekoizleak:** Menudas Pájaras

**Konpainia:** Menudas Pájaras

**2024ko maiatzaren 9a, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Felix Petite antzokia (Ibaiondo gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

BOLLO-TRANS BERTSO-SAIO MUSIKATUA

M17

# BOLLO-TRANS BERTSO-SAIO MUSIKATUA

BAIETZ ULERTU

**2024ko maiatzaren 18a, larunbata**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Saio honetan, hainbat bertsolari eta bi musikari arituko dira. Gai-jartzaile batek lagunduta, LGTBIQ+ ikuspegia oinarri eta feminismoa iparrorratz, inprobisatu, sortu, jolastu eta askotariko gaiak aldarrikatuko dituzte. Bertso-saio honek gogoeta sorrarazi nahi digu, estereotipoak eta aurreiritziak umorez hautsi, oraingo diskurtsoak zalantzan jarri eta, bereziki, primeran pasarazi, giro atsegin eta dibertigarrian. Bazatoz?

**Konpainia:** Lanku Kultur Zerbitzuak



M17

# WATTEKE

Watteke festa da, *inproa*, musika, kritika soziala, bakarrizketak, antzerkigintzaren askatasuna, eszenak, giroak, abesti inprobisatuak, argiztapena, soinu-efektuak eta askoz ere gehiago... Diziplina anitzeko inprobisazio-formatu bat da, berritzailea, non istorio inprobisatuek bat egingo baitute eszenako argiztapen- eta soinu-teknikarekin.

Aurreiritzietan oinarritzen ez den eta pribilegioak zalantzan jartzera bultzatzen gaituen umore feminista eta integratzaileari buruzko ikerketa etengabea da gure lanaren funtsa.

**Inprobisatzaileak:** Elba Ruiz eta Zahira Montalvo

**Kontzeptuaren sortzailea:** Omar Galván

**Konpainia:** Kancaneo Teatro

**2024ko maiatzaren 25a, larunbata**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



# ZINE FORUMA
## 3REN ARTEAN

**Koordinatzailea:** Helena González Estévez, Zinhezba kultur elkarteko zinema-programatzailea

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema

**Antolatzaileak:** Gasteizko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua, Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, BIZAN-Adinekoen Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua



# MI PAÍS IMAGINARIO

*"2019ko urria: ezusteko iraultza bat, gizarte-asaldura bat. Milioi eta erdi pertsonak manifestazioa egin zuten Santiagoko kaleetan, demokrazia gehiago, bizitza hobeak, hezkuntza- eta osasun-sistema hobeak eta konstituzio berri bat eskatzeko.*
*Txilek memoria berreskuratu zuen... Azkenik, egia bihurtu zen 1973ko ikasle-borroketatik hainbeste desio nuena".*

*Patricio Guzmán*

**2023ko urriaren 19a, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema, 1. aretoa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista (emanaldia baino 2 hilabete lehenago)

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** gaztelania

**Urtea:** 2022

**Iraupena:** 83 min.

**Herrialdea:** Chile

**Zuzendaria:** Patricio Guzmán

**Generoa:** Dokumentala




# LAS BUENAS COMPAÑÍAS

A25

1977ko uda. Beak 16 urte dauzka, eta bat egin du herrialdea zeharkatzen ari diren aldaketa-giroekin; hala, emakume-talde batean, kausa feminista ikusarazteko eta aborturako eskubidea onets dezaten lortzeko egingo du lan. Odolean sentitzen duen errebeldia, ordea, barne-mundua aztoratuko dion sentimendu batekin nahasiko zaio. Hilabete hauetan, Beak oso harreman berezia eraikiko du bera baino zertxobait nagusiagoa eta familia onekoa den Mirenekin. Uda honetan, konpromiso politikoak eta Mirenekin duen harremanak inflexio-puntua ekarriko diote bere bizitzari.

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** gaztelania

**Urtea:** 2023

**Iraupena:** 93 min.

**Herrialdea:** Espainia eta Frantzia

**Zuzendaria:** Silvia Munt

**Generoa:** Fikzioa

**2023ko azaroaren 23a, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema, 1. aretoa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista (emanaldia baino 2 hilabete lehenago)

Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua




## PLAN 75 プランななじゅうご

Japonian, etorkizun hurbil batean, biztanleria oso azkar ari da zahartzen. Gobernuak '75. Plana' ezarri du. Programa horrek bizitza amaiarazteko laguntza logistiko eta finantzarioa proposatzen die adinekoei.

**Jatorrizko bertsioa japonieraz, gaztelaniazko azpitituluekin**

**Zineforumaren hizkuntza:** gaztelania

**Urtea:** 2022

**Iraupena:** 105 min.

**Herrialdea:** Japonia

**Zuzendaria:** Chie Hayakawa

**Generoa:** Fikzioa

**2024ko urtarrilaren 25a, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema, 1. aretoa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista (emanaldia baino 2 hilabete lehenago)

BIZAN, Adinekoen Zerbitzua



# LA CONSAGRACIÓN DE LA PRIMAVERA

Laura Madrilera iritsi berri da, unibertsitatean ikasteko. Madrilen, David ezagutuko du: amarekin bizi da, eta garun-paralisia dauka. Laura eraldatuko duen harreman bat eraikiko dute.

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** euskara

**Urtea:** 2022

**Iraupena:** 110 min.

**Herrialdea:** Espainia

**Zuzendaria:** Fernando Franco

**Generoa:** Fikzioa

**2024ko otsailaren 29a, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema, 1. aretoa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista (emanaldia baino 2 hilabete lehenago)

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua



M17

# PETIT MAL

*"Ezagutu al duzu inoiz 'hirukote' bat? Etxeko ateak irekiko ditugu, nolako bizimodua dugun eta guk, emakumeen hirukote batek, gutako baten absentzia nola bizi dugun erakusteko. Bakardadearekin eta jeloskortasunarekin nola borrokatzen garen eta hiru bi bihurtzen direnean nola egokitu behar dugun erakusten du film erreal honek."*

*Ruth Caudeli*

**2024ko maiatzaren 16a, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida zinema, 1. aretoa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista (emanaldia baino 2 hilabete lehenago)

Berdintasun Zerbitzua

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** gaztelania

**Urtea:** 2022

**Iraupena:** 89 min..

**Herrialdea:** Kolonbia

**Zuzendaria:** Ruth Caudeli

**Generoa:** Fikzioa

# **IRAKURLE-KLUBAK** ETA IDAZKUNTZA-LANTEGI LITERARIOA

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

**HARTZAILEAK:**
Interesa duen edonor

# FEMINIST AGENDA EUSKAL LITERATURAN IRAKURLE-KLUBA

KOORDINA-TZAILEA: **Gema Lasarte Leonet**, doktorea Literatur Zientzietan, eta irakaslea EHUko Literaturaren Didaktikan. Irakurzalea, literaturzalea eta hainbat liburu eta artikuluren egilea

Lantegi honetan, euskaraz idatzitako edo euskarara ekarritako literaturara hurbilduko gara, ikuspegi feminista batekin, emakumeak nahiz gizonak inplikatzeari begira, berdintasuna sustatuko duen autokontzientzia sortzeko asmoz. Saioetan, hainbat literatur testu aztertuko ditugu (trama, edukiak, adierazpideak, pertsonaiak eta abar). Erdigunean, emakumeak: emakumeak eta emakumeek idaztean nahita edo nahi gabe erabiltzen duten agenda.

**Hileko lehen asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara**

| 2023 | 2024 |
|---|---|
| **Urriak 4** | **Urtarrilak 10** |
| **Azaroak 8** | **Otsailak 7** |
| **Abenduak 13** | **Martxoak 6** |
| | **Apirilak 10** |
| | **Maiatzak 8** |

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
ABONAMENDUAREKIN: 4,80 €
ABONAMENDURIK GABE: 8,00 €
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: %15 (Ikusi "Kontuan hartu beharreko oharrak")

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# LA HORA VIOLETA IRAKURLE-KLUB FEMINISTA

KOORDINA-TZAILEA: **Begoña Etayo Ereña**, aditua da genero-berdintasunean eta garapenerako lankidetzan, eta Maria de Maeztu Forum Feministako kidea da

Bioleta feminismoaren kolorea da, eta ordu bioleta, aldiz, ilunabarrarena. Ordu horretan, egunak eta gauak elkar besarkatzen dutenean, emakume-talde bat elkartuko gara, aldez aurretik irakurri dugun liburu baten inguruan askotariko iritziak elkartrukatzeko. Emakumeon kontzientzia kolektiboan murgiltzeko aukera eskaintzen diguten eleberri, saiakera eta iritzi-artikuluekin egingo dugu topo. Testu horien irakurketa pertsonal eta intimoekin ikastea da asmoa, baita gure lehen irudipena besteen ekarpenekin osatzea ere. Aldi berean, feminismoaren inguruko prestakuntza jasoko dugu, eta feminismoak gure bizitza nola aberastu dezakeen ikusiko.

**Hileko hirugarren asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara**

| 2023 | 2024 |
| --- | --- |
| **Urriak 18** | **Urtarrilak 17** |
| **Azaroak 15** | **Otsailak 21** |
| **Abenduak 20** | **Martxoak 20** |
| | **Apirilak 17** |
| | **Maiatzak 15** |

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
ABONAMENDUAREKIN: 4,80 €
ABONAMENDURIK GABE: 8,00 €
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: %15 (Ikusi "Kontuan hartu beharreko oharrak")

**HARTZAILEAK:**
Interesa duen edonor

# IRAKURKETA OKERRAK, LECTURAS DESVIADAS IRAKURLE-KLUBA

KOORDINATZAILEAK: **Sejo Carrascosa López**, kuir aktibista eta Lumagorri ZATeko kidea
**Kristina Arteaga Baños**, literaturzalea eta feminista

Literatura izan da sexu- eta genero-aniztasunen errealitatea aske agertu eta aitortzeko gune urrietako bat. Proposatutako irakurketetan eta bidelaguntza-saioetan, hainbat literatur testu jorratu eta aztertuko ditugu. Testu horien tramak, edukiek, pertsonaiek eta garapenek, baina, zisheteronormatibitateari erantzuten ez dioten askotariko bizitzak, desirak eta gorpuztasunak izango dituzte erdigunean.

**Hilabeteko azken astearteetan, 18:30etik 20:30era**

| 2023 | 2024 |
|---|---|
| **Urriak 31** | **Urtarrilak 30** |
| **Azaroak 28** | **Otsailak 27** |
| **Abenduak 26** | **Martxoak 26** |
| | **Apirilak 30** |

**Tokia:** Ikusgune. Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako Behatokia (Pintore kalea 47)

**Hizkuntza:** Gaztelania / Euskara

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
ABONAMENDUAREKIN: 4,80 €
ABONAMENDURIK GABE: 8,00 €
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: %15 (Ikusi "Kontuan hartu beharreko oharrak")

**Laguntzailea:** Ikusgune

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# CLUB DE LECTURA FÁCIL FEMINISTA

KOORDINA-TZAILEA: **Natalia Jiménez Guitian**, Euskadi Irakurketa Errazeko kidea

Istorioak partekatzeko eta irakurketaren bidez ahalduntze-prozesuak sustatzeko plazerarekin esperimentatuko dugu. Irakurle-klub inklusibo honek irakurketa errazeko materialak erabiltzen ditu, eta, bertan, ozen irakurtzeaz gain, istorioei buruz hitz egin eta hausnartuko dugu, ikuspegi feministatik abiatuta.

**2023ko urritik 2024ko maiatzera, asteazkenero, 18:00etatik 19:00etara**

**2023**

**Urriak 18 eta 25**
**Azaroak 8, 15, 22, 29**
**Abenduak 13 eta 20**

**2024**

**Urtarrilak 10, 17, 24 eta 31**
**Otsailak 7, 14, 21 eta 28**
**Martxoak 6, 13, 20 eta 27**
**Apirilak 10, 17 eta 24**
**Maiatzak 8 eta 15**

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
ABONAMENDUAREKIN: 4,80 €
ABONAMENDURIK GABE: 8,00 €
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: %15 (Ikusi "Kontuan hartu beharreko oharrak")

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

**2024ko apirilak 8, 15 eta 22 eta maiatzak 6**

**Ordutegia:** Astelehenetan, 17:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
ABONAMENDUAREKIN: 11,64 €
ABONAMENDURIK GABE: 19,56 €
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: %15 (Ikusi "Kontuan hartu beharreko oharrak")

# VOCES LITERARIAS FEMINISTAS

KOORDINATZAILEA: **Luisa Etxenike Urbistondo**, idazle nabarmena da, eta hainbat komunikabidetan idazten du; halaber, "Canal Europa" kultur plataforma digitaleko eta "Emakume idazleen mundu bat" literatur jaialdiko zuzendaria da. Urteak daramatza idazkuntza sortzaileko lantegi bat zuzentzen

Literatura-idazkuntza feministara hurbilduko gara, oinarrizko egileen lanak irakurriz eta lanok izandako harrera aztertuz. Sakoneko gaiei helduko diegu, baina baita formari ere: *zer* eta *nola* elkarri lotuta, ahalik eta espresio-eraginkortasunik handiena lor dezagun.

# IKAS<br>TA<br>ROAK<br>ETA<br>LAN<br>TE<br>GIAK



**HARTZAILEAK:**
Interesa duen edonor

# DESHABITADAS: VIOLENCIAS, RESISTENCIAS Y ALTERNATIVAS FRENTE A LA NECROPOLÍTICA

TREBATZAILEAK:
**Dalila Argueta**, Basoa-Defendatzaileen Etxea proiektuko kidea eta IMD lurraldeko defendatzailea (Guapinol-Honduras)
**Gonzalo Fernández**, Euskadi-Bakea eta Duintasuna elkarteko koordinatzailea eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) ikertzailea
**Raquel Celis**, 'Deserrotuak, inor lekualdatu gabe bizi' kanpainaren sustatzailea eta ZEHAR-Errefuxiatuekin elkartearen Intzidentzia eta Parte-hartze Sozialeko kidea
ZENTZUZ – Gasteizko bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sarea

Lekualdaketa behartuen harira, nahitaez begiratu beharko genioke bizitzari gerra deklaratu dion sistema honetan dugun lekuari. Sistema zisheteropatriarkal biozida, kolonial eta ondasun-, gorputz- eta lurralde-estraktibista honek pertsonak lekualdatzen, kanporatzen eta jazartzen ditu, aberasten jarraitu bitartean.

Ikuspegi feminista batetik jorratuko dugu gaia, tokikoa eta globala erlazioan jarriz eta erbestetik nahiz gure udalerrietatik abiatu ditugun erresistentzia-esperientziak partekatuz.

**2023ko urriak 5**

**Ordutegia:** Osteguna, 17:30etik 19:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Zehar-Errefuxiatuekin

**HARTZAILEAK:**
Interesa duen edonor

# LA BICI DE LOLA

## HAURREN ARTEAN SEXU-INDARKERIAK PREBENITZEKO ALBUM ILUSTRATUA




**Albumaren aurkezpenean, egileak gurekin izango dira eta Judit Piella ilustratzaileak zuzenean sortuko ditu marrazkiak.**

**Alba Barbé i Serra**, generoan eta sexualitatean espezializatutako antropologo eta gizarte-hezitzailea

**Laia Pibernat i Mir**, Biologian lizentziaduna eta Osasunaren Antropologian espezializatua

**Judit Piella**, ilustratzailea eta ingurumen-ikertzailea

"La bici de Lola" erresilientzia-baliabide propio eta kolektiboekin lotzen gaituen istorio bat da, eta erasorik jasan badute hitz egitera animatzen ditu haurrak, helduak entzutera eta babestera bultzatzearekin batera.

Tabua haustea da haurtzaroan sexu-erasoak egoteari uzteko lehen urratsa.

**Jatorrizko ideia, gidoi grafikoa eta elkarrizketak:** Alba Barbé i Serra eta Laia Pibernat i Mir

**Ilustrazioak:** Judit Piella Clarà

**2023ko urriak 6**

**Ordua:** Ostirala, 18:00etan

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**HARTZAILEAK:**
IGE-etako kideak eta hezkuntzako agenteak (profesionalak eta irakasleak). Herritarrei irekia

# PROPUESTAS COEDUCATIVAS: EDUCACIÓN SEXO-AFECTIVA

TREBATZAILEA: **María Rodríguez Suárez**, sexologoa eta Generoa eta Aniztasuneko doktorea. RIZOMA proiektua koordinatzen du, eta, sexu-hezkuntzako hainbat programatan prestakuntza emateaz gainera (Asturiasen), material didaktikoak egiten ditu

DINAMIZATZAILEA: **Arantza Magunazelaia**, Hezkuntza Zerbitzuko berdintasun-teknikaria

Metodologia dinamiko eta parte-hartzaile baten bidez, hezkidetzaren proposamen teorikoak eta hezkuntza-zentroetako eguneroko praktikak konbinatuko ditugu lantegi honetan.

Hezkuntza sexu-afektiboarekin lotutako alderdiak jorratuko ditugu. Arlo honetan, IGE-ek nola eragin dezakete, esku hartzeko duten eremutik jardunda, praktika hezkidetzaileagoak sor daitezen? Hausnartu egingo dugu, esperientziak partekatuko ditugu, eta IGE-en jardun-eremuan praktika hezitzaileetan aurrera egiteko tresnak eskuratuko ditugu. Erronka nagusiei erantzungo dieten estrategiak kontrastatu eta eraikitzeko gune bat sortuko dugu.

**2023ko urriak 7**

**Ordutegia:** Larunbata, 09:30etik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izena emateko aldia:** 2023ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Hezkuntza Zerbitzua

**HARTZAILEAK:**
Elkarte eta kolektibo sozialak

# EN LAS ASOCIACIONES, ¿NOS DA = LA IGUALDAD?
## CÓMO INTEGRAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO E INTERSECCIONAL

